

NOLA EGIN

1. Osagaiak

- a) Liburua. b) Irudiak (argazkiak edota bideoak). d) Testua (gidoia)
e) Ahotza f) Musika

2. Liburua irakurri eta gertakari interesgarrienak gogoratu eta jaso, gidoian tertatzeko. Esaldi esanguratsuak pentsatu, bideoa erakargarria izan dadin.

3. Ez ahaztu honako informazio hau agertu behar dela bideoan:

- a) Liburuaren egileen izenak (idazlea, ilustratzailea, itzultzailea). b) Liburuaren izenburua. d) Erabilitako irudien eta musikaren iturriaren aipamena.
Liburuaren azalaren irudia.

4. Gidoia idatzi.

5. Irudiak sortu edo aurkitu.

- a) Argazkiak. b) Marrazkiak. d) Ilustrazioak. e) Bideoak.

Zuk egindako zein interneten aurkitutako irudiak erabili ahal dira, baina ezinbestekoa da kredituetan egileen izena aipatzea.

AD!!!! Creative Commons zigilua duten lanak erabiltzen saiatu, hori baita jabetza libreko lizentziarik ezagunena.

6. Musika sortu edo aurkitu. Honako orri hauetan musika libre hartu ahal da (egilea aipatzea ezinbestekoa da).

- a) Jamendo. b) CCMixer. d) Danosongs.

7. Argazki edota bideo ediziorako zenbait programa:

- a) Software librekoak:– Kdenlive.– PiTiVi.– Cinelerra.– Open Movie Editor.
b) Komertzialak:

– Microsoft Power Point. – Windows Movie Maker. – iMovie, Picasa, Pinnacle Studio, Microsoft Photo Story, Adobe Premiere Elements 9.0, Animoto, Photo Slideshow Creator, Photodex, Corel, Pictures To Exe, Photo to Movie, Photo DVD, Prezi.

Gogoan izan, USB edo wetransfer bidez entregatu beharko direla Booktrailerrak. Sarituak, udaletxeko webgunean eta sare sozialetan argitaratuak izango dira.

* Iturria: www.galtzagorri.org

* Iturria: www.galtzagorri.org

PLAZIDA OTAÑO

LIBURUTEGIKO

I. BOOKTRAILER

LEHIAKETAREN OINARRIAK

**1. Ikasle bakoitzak aukeratutako titulu irakurriko du:
PROPOSAMENAK zerrdatik hautatutako liburu bat.
PROPOSAMENAK :**



Jara
Jasone Osoro



Beti iparralderantz
Jon Arretxe



Urrezko orrazia
Gaizka Arsoategi



Eireren egunerokoa
Esti Vivanco



Ezekiel
Jasone Osoro



Motozerra
Xabier Mendiguren



Eskularru beltza
Jasone Osoro



Neska baten hitza
Alfredo Gomez Cerdá



Tximeletaren oihua
Jordi Sierra i Fabra



Ahaztuen mendekua
Alberto Ladrón



Kulero saltzailak
Miguel Angel Mintegi



Maiatasun sua
Aitor Arana

2. Ikasle bakoitzak irakurri duen liburuarren gaineko book trailer edo erreseina interaktibo bat egin beharko du, eta, ondoren, 2017ko AZAROAREN 30a baino lehen USB edo wetransfer bidez, entregatu beharko du book trailerra,. Plazida Otaño Liburutegian USBaren kasuan elta zizurkiliburutegia@gmail.com, wetransferren kasuan.

Book trailerrak hiruko edo lauko taldeetan egitea gomendatzen dugu.

3. Book trailer edo erreseina interaktiboa modu errazean egin daiteke, egungo teknologiak erabiliz. Azalpen guztiak, book trailerra egiteko urrats guztiak, BIDEA TUTORIAL INTERAKTIBO berri batean izango dituzue Liburu Gaztea webgunean. Ez ahaztu, bideoa ikusten duenari, liburu hori irakurtzeko gogoia piztea dela helburua.

Modu askotako booktrailerrak daude: erabat antzeztuak, bideo animazioak, musikaz, testuz nahiz ahotsez lagundutako argazki muntaiak eta abar. Gehienetan booktrailerrek liburuan agertzen den materiala erakutsi ohi dute, baina ezinbestean trailer itxura izan behar dute.

4. Hala ere, Zizurkilgo Liburutegia zuen kontsulta eta zalantzei erantzuteko prest izango da ikasturtean zehar. Horretarako gure e-posta emango dizuegu:

zizurkiliburutegia@gmail.com

5. Lehiaketan book trailer hoberenak epaimahai batek hautatuko ditu.

6. Bi modutan har daiteke parte lehiaketan: Ikastetxeen kategorian edota Norbanakoen kategorian. Baina ezin da book trailer bera aurkeztu bi kategorietan. Ez dago aurretik izena eman beharrik, nahikoa da bakoitzaren adinari dagokion liburua irakurri eta book trailerra lehiaketako azken eguna baino lehen bidaltzea.

7. Book trailerren iraupena: Gehienez, 2 minutuko iraupena duten lanak onartuko dira.

8. Ez dira onartuko filmetatik hartutako irudiekin soilik osatutako book trailerrak.

9. Epaimahaiak euskararen zentzasuna eta egokitasuna aintzat hartuko ditu. Ez dira akats larriak dituzten lanak sarituko.

10. Irabazleak epaimahai batek hautatuko ditu. Epaimahai hau lagunek osatuko dute: Zizurkilgo Kultura saileko kide batek, Liburutegizainak, ikus-entzunezkoetan aditu batek (Aldundiko Gaztediko teknikaria eta idazle batek).

11. Ikastetxeen kategoriako irabazleak hautatzeko garaian, epaimahaiak bi multzotan banatuko ditu lanak: DBH1-2 multzoko lanak eta DBH3-4 multzokoak. Hortaz, bi sari nagusi banatuko dira ikastetxeetako kategoriakoan bat, eta ez da bigarren eta hirugarren saririk izango. Norbanakoen kategorian, ordea, maila guztiak batera lehiatuko dira, parte-hartze txikiagoa izaten baita sail honetan eta sari bakarra izango da lehenengoarentzat.

12. SARIAK: a. IKASTETXEKA:

. DBH1-2: Sari bakarra; 150 euro ikasle hiru-laukotearentzat.

. DBH3-4: Sari bakarra; 150 euro ikasle hiru-laukotearentzat.

b. NORBANAKOKA: Sari bakarra : e-reader bat

13. Lanak aurkezteko azken eguna 2017ko AZAROAREN 30a izango da.

14.- Lehiaketa, ondorengo herrietako ikastetxe edo ikasleei mugatzen da :

Aduna, Alkiza, Asteasu., Larraul, Amasa-Villabona, Zizurkil, Andoain, Irura eta Anoeta.